

Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak MONDRAGON UNIBERTSITATEko laborategiak bisitatu ditu

2015/09/02

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoaren funtzionamendua ezagutu eta bertako laborategietan garatzen ari diren proiektu teknikoetako batzuk bertatik bertara ezagutzea izan da bisitaren helburua.

Bisitaldian, hainbat sektoretako enprekin eta Zientziaren eta Teknologiaren Euskal Sareko beste eragile batzuekin batera garatzen ari diren ikerkuntza- eta transferentzia-proiektu nagusiak (teknologikoak zein ez-teknologikoak) erakutsi zaizkio sailburuari.

Unibertsitatearen eta enpresen arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu dute Arantza Tapiak eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektore Vicente Atxak, euskal enpresen lehiakortasuna hobetzeko bidea delakoan.

